

Errauskailuaren kontrako manifestazioa bihar Bilbon

■ *Birziklatzea da alternatiba, talde ekologisten iritziz*

Erredakzioa / Bilbo

ERANDIOKO errausteko labe proiektuaren kontrakomantifestazioa egingo da bihar Bilbon. Errauskailuaren Kontrako Plataformak egin du deia, eta zenbait indar politiko eta ekologista gehitu zaizkio. Manifestazioa Arenatik irtengo da arratsaldeko 19:30etan.

Errausteko labearen kontrakoek azpimarratu dutenez, hondakinak deusezteko planta berezi hau eraikitzeak 23.000 milioi pezetako kostua izango du (ia miliar bat libera), eta gastu hori herritarren zaborrengatik tasetan igarri behar da nahitaez. Talde ekologistek behin eta berriro kritikatu dute Bizkaiko Foru Aldundiak errauskailu hau egiteko jarri

duen enpeinua. Haien iritziz, Gipuzkoako etsenplua segitu beharko luke Bizkaia. Gipuzkoako Foru Aldundiak zaborrak desegiteko sistemen artean baztertu egin zuen bere garaian erraustea.

Erraustea baino alternatiba hobek daude zaborretarako, ekologisten iritziz. Gehiago birziklatzea eta gaikako bilketa indartzea dira horien artean nagusiak. Adibidez, jatorri organikoko hondakinak bilduko balira (etxeke zaborraren % 40 inguru dira), konposta sor daiteke horrekin, eta gai hori isurtegi kontrolatueta utz daiteke, ez baita kutsagarria.

Biharko deialdiarekin bat egin dute, besteak beste, Ezker Batua eta Herri Batasuna alderdiek. X

Akats batzuk izan dira Sokoburu laket portuan

■ *Akitaniako Kontu Ganbarak irregulartasunak salatu ditu*

O.G. / Baiona

HENDAIKO Sokoburu laket portuaren eraikuntza irregulartasunak izan zirela jakinarazi du Jean Arriau SEPA (Pirinio Atlantikoetako Ekipamendu Sozietatea) elkarte buruzagiak, Akitaniako Kontu Ganbarak egindako ikerketan oinarriturik.

SEPAk eta Jean Arriau lehendakariak Akitaniako Kontuen Ganbarako txostena presentatu dute, biltzar publikoan. Kontuen Ganbarak eraikuntza berriez aldeko ala kontrako iritzia ematen du. Duela zazpi urte, Hendaiako agintariak erabaki zuten etxeak egitea Soko auzoan kokatzen den portuaren inguruan. Aste honetan kontuak aurkeztu dituzte eta irregulartasunak atzeman.

Kontuen Ganbarak kritika aintz egin du Sokoburu portuari buruz. Dokumentuan, Ganbarak ohar asko egin du eraikuntzen ardura enpresa bati ematean izan diren akatsei buruz. Eraikuntzak egiteko

enpresak legez kanpo hautatuak izan ziren, merkatu publikoetan egiten den lehiaketa etxegileen artean ez baitzen egin, Kontu Ganbararen arabera. Garai hartan SEPA organismoa lantaldeez arduratzen zen eta batez ere lanaren banaketaz Sokoburu etxeen eraikuntza.

Jean Arriau lehendakariak, bere burua eta SEPA elkartearen arduradunena zuzitzeko, irregulartasuna egin zen garaian hor ez zirela jakinarazi du, 1992 urtera arte Franz Duboscq baitzen burua.

Ipar Euskal Herriko abertzaleek, Sokoburu portuaren aurka eraman zuten kanpaina Sokoburu ez lemapean. 1990 eta 1991n, bilkura publikoak eta traktak zabaldu zituzten aipatuz turistifikazio politikaren aldeko proiektua zela.

Hala ere, albistea hauteskunde kanpaina agertu dela ezin ahanztu. Raphael Lassalette Hendaiako auzapeza da eta seigarren hautes-barrutiko sozialisten hautagaia. X



Jokoaren Arautzaileen Europako Foroak atzo Donostian egindako batzarra.

ANTONIO ALONSO / EFE

Joko birtuala, kontrolaezina

Interneteko apostuen kontrolari buruzko eztabaidan ari dira adituak

Europa osoan jokoaren kontrolaz arduratzen diren ehun profesional inguru Donostian daude batzartuta, sektore horretan izan diren azken aldaketak eztabaidatzeko. **Batik bat, Internet baliatuz egiten diren jokoak kontrolatzeko bideak aztertuko dituzte, administrazioen kontroletik kanpo baitaude gaur egun.**

Agentziak / Donostia

JOKOAREN ARAUTZAILEEN EUROPAKO FOROA, GREF izenekoa, Donostian dago bilduta, sektoreari buruzko araudia, informazioa eta kontrolerako ekimenen berri trukatzeko. Guztira,

hemeretzi administrazio eta gobernu agentziatako ordezkariak ari dira eztabaidan atzo hasi eta bihar eguerdira bitartean.

Batzarra atzo zabaldu zuten Shirley Litter-ek, elkarteko lehendakariak, eta Juan Maria Atutxak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuak. Lehen jardunaldian hiru gai zituzten aztertzeak; hiruren artean, baina, bat nabarmendu zen: informazioaren autobideak eta bestelako teknologia berrien bitartez egiten den jokoak.

Alberto Sanz Eusko Jaurlaritzako Joko Galetarako arduradunak aurkezpen ekitaldian azaldu zuenez, «joko telematikoa do birtuala» da gaur egun esparru horretan lan egiten dutenek topatzen duten arazorik handiena: administrazioaren kontroletik ihes egiten du eta ogasun publikoetan zergak ordaintzea saihesten.

Horrezaz gainera, «kontrolrik ezari lotutako beste arazo batzuk ere» sortzen dituzte bitarteko berri horiek: esaterako, ludopatia kontrolatu ezina. Jokoarekin duten adikzioagatik kasino, bingo eta antzekoetan sartzea debekatua duten pertsonak etxetik atera gabe dute orain jokoan aritzeko aukera. «Joko birtualek edo telekomunikazio bidezkoek bertan behera uzten dituzte ludopatia kontrolatzeko gizarteak zituen bitartekoak», azpimarratu zuen Sanzek.

Une honetan, «kasino birtualak» kontrolatzeko neurririk apenas duten administrazioek eta gobernu agentziek. Dena dela, bide horretatik azterketa ugari egiten ari direla arrazoituta, «kontrolrik gabeko jokoak leher dadin eragozteko» bitarteko berriak gutxi berru topatuko direla ziurtatu zuen Jaurlaritzako ordezkariak. X

Anaia hil zuen agure bat absolbitu du epaileak epaimahaia disolbitu ostean

■ *Magistratuak legea kritikatu du kasua ez zelako zinpekoek epaitzekoa*

Vasco Press / Bilbo

MUNGIAN anaia hil zuen agurea absolbitu egin du epaile batek eta, aldi berean, kasua ez zela zinpekoen epaimahaiarekin epaitu behar ohartarazi. Asensio Legarreta Muruaga 82 urteko gizonak bere anaia Salvador hil zuen joan den urteko apirilaren Mungiako baserri batean (Bizkaia); aitzurrarekin buruan emanda hil zuen, eta aizkorarekin pusketatan zatitu zuen gorpua.

Kasua epaitzeko, zinpeko epaimahaia osatu zen Bilboko auzitegi batean, baina azkenean epimahaia hori desegin egin du

magistratuak, absoluzio sententzia eman aurretik.

Epaileak bere kexua adierazi du kasuak ez zuelako zinpeko epimahaia batera iritsi behar. Epaitzeko «edukirik ez» zuen kasua zen hau epailearen aburuz. Zinpeko epaimahaia gertaera batzuk finkatzea du helburu, baina kasu honetan ez zegoen zalantzarik gertaeren inguruan, eta aldeak kalifikazioan ere ados zeuden. Horregatik guztiagatik, legeak dituen hutsuneak salatu ditu auto batean epaileak, «epaimahaiaren legearen aldaketa hipotetiko bati begira».

Kasuko fiskaltza eta defentsa ados zeuden hasieratik Asensio

Legarretaren kasuan ez zela kartzelarazterik planteatzen. Aldiz, bi aldeak ados zeuden «segurtasuna» bermatu behar zela esatean, eta era horretako sententzia bat emateko euskumena duen bakarria epaile magistratu bat da, ez zinpekoekin ostatutako epimahaia bat. Epaileak errugabetzat jo du, «bere gaitasun intelektualak erabat ezabaturik» zeuzkalako. Errugabetzat jo arren, zaintza psikiatrikoan jarri dute agurea, eskizofrenia paranoideak jota omen dago eta. Hala ere, Asensio Legarretak Mungiako baserrian bizitzen segituko du oraingoz, arreba batek zainduta. X

ESKELAK



*Kantaz eta eresiaz daramate zerura,
Inongoikoak prometatu zioen ostatura.*

Ioannes Etxeberri Ziburukoa

**Kontxi
Larrañaga
Mendizabal**

ZURE FAMILIA

1997ko maiatzak 23.